



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

### LEGE BILTZARREKO MAHAIARI

Iñigo Iturrate Ibarra, Julen Arzuaga Gumuzio eta Mikel Unzalu Hermosak, Euzko Abertzaleak, EH Bildu eta Euskal Sozialistak taldeetako legebiltzarkideok, hurrenez hurren, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo Legez Besteko Proposamena aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, **Frankismoaren krimenen arduradunak ikertzea bultzatu beharri buruz.**

Argentina eta Espainiako Erresumen arteko Estradiziorako eta Zigor Arloko Laguntza Judizialerako Ituna betetzeari uko eginez, Espainiako Justizia Ministerioak bazter utzi du Frankismoaren Aurkako Argentinako Salaketa tramitatzen duen Buenos Aireseko 1. Zigor Auzitegi Federalaren erregua, eta hori prebarkazio delitutzat jo daiteke agian.

Argentinako epaitegiaren erregua, otsailaren 18ko data duena, martxoaren 9an jaso zuen Espainiako Gobernuak, eta diktadura frankistan zehar hainbat ekintza egiteagatik inputatutako 19 pertsonen itaunketa egitea du helburu. Martxoaren 31n espainiar Justizia Ministerioari eskatu zitzaion Argentinako epaitegiak luzatutako erreguzko mandatua bete zezala eta, ondorioz, berehala helaraz ziezaiola Auzitegi Nazionaleko Instrukzio Epaitegi Zentralen Dekanotzari, dagozkion efektu legalak izan zitzaizkien. Ministerioaren erantzunik ezaren ondorioz Maria Servini de Cubria epaile andereak eta Buenos Aireseko epaitegiko talde juridikoak eginbide horiek betetzeko aurreikusita zeukaten bidaia, hil honen 4tik 22ra bitartean, bertan behera utzi behar izan dutela.

### A LA MESA DEL PARLAMENTO

Iñigo Iturrate Ibarra, Julen Arzuaga Gumuzio y Mikel Unzalu Hermosa, parlamentarios, respectivamente, de los grupos Nacionalistas Vascos, EH Bildu y Socialistas Vascos, al amparo del Reglamento vigente en la Cámara, presentamos la siguiente proposición no de ley para su debate en Pleno **sobre la necesidad de impulsar la investigación de los responsables de crímenes del Franquismo.**

El Ministerio de Justicia español, incumpliendo el Tratado de Extradición y Asistencia Judicial en Materia Penal entre Argentina y el Reino de España, ignora el exhorto del Juzgado de lo Criminal y Correccional Federal 1 de Buenos Aires que tramita la conocida como Querrela Argentina contra el Franquismo y con ello puede estar incurriendo en un posible delito de prevaricación.

El exhorto del Juzgado argentino, cursado el 18 de febrero y entregado al Gobierno español el 9 de marzo, establece el interrogatorio para 19 imputados por diversas actuaciones durante la dictadura franquista. El 31 de marzo se procedió a solicitar al Ministerio de Justicia español que atendiera el exhorto o comisión rogatoria librado por el juzgado argentino, y en consecuencia, procediera a su inmediata remisión al Decanato de los Juzgados Centrales de Instrucción de la Audiencia Nacional, todo ello a los efectos legales oportunos. La falta de respuesta, ha provocado la suspensión del viaje previsto por la Jueza M<sup>a</sup> Servini de Cubría y el equipo jurídico del juzgado de Buenos Aires para tales diligencias entre el 4 y el 22 del presente mes de abril.

Espainiako Erresumak eta Argentinak sinatutako Alde Biko Itunaren urratzea eta indarrean dagoen nazioarteko legediaren ez-betetzea direla eta, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onartzen du ondorengo legez besteko proposamena:

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

1.- Eusko Legebiltzarrak beste behin berresten du lehenago eta hainbat aldiz adierazi duena, eta elkartasuna adierazten die kolpe militarrek eta ondorengo diktadura frankistak eragindako biktima guztiei.

2.- Eusko Legebiltzarrak egungo Espainiako Gobernuaren eta haren Justizia Ministerioaren geroratze-taktika oztopatzailea salatzen du, frankismo garaian egindako krimenen balizko arduradunei ikerketa-deklarazioak hartzeko eta bestelako eginbideak burutzeko gaur arte egindako eskariak aintzat hartzea eragotzi dituelako.

3.- Eusko Legebiltzarrak espainiar Estatuko gobernuari, oraingoari zein ondoren etorriko direnei, eskatzen die diligentzia osoz errespetatu eta aintzat har dezatela Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Legedia, eta zorrotz bete ditzatela aspaldidanik Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak bere Kontalari Berezien bitartez egiten ari den gomendio guztiak.

Gasteizen, 2016ko apirilaren 22ean

Ante este grave incumplimiento del Tratado Bilateral suscrito entre el Reino de España y Argentina y la no aplicación de la legislación internacional vigente, el Pleno del Parlamento Vasco acuerda la siguiente proposición no de ley:

### **PROPOSICIÓN NO DE LEY**

1.- El Parlamento Vasco reitera, una vez más, lo ya manifestado en múltiples ocasiones y hace pública su solidaridad con todas las víctimas generadas por el golpe militar y la posterior dictadura franquista.

2.- El Parlamento Vasco denuncia la actitud dilatoria y obstruccionista del actual Gobierno español y de su Ministerio de Justicia para atender los varios requerimientos efectuados hasta la fecha para realizar diversas diligencias y toma de declaraciones indagatorias a posibles responsables de crímenes cometidos en el período franquista.

3.- El Parlamento Vasco insta a los Gobiernos del Estado español, actual y futuros, que respeten y asuman con total diligencia la Normativa Internacional sobre Derechos Humanos, así como el cumplimiento estricto de todas las recomendaciones que el Comité de Derechos Humanos de Naciones Unidas viene realizando desde hace años a través de sus Relatores Especiales.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de Abril de 2016

